



UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2020/02/04) Hurrengo saioa: (2020/02/18)	ITSASO 2030 Azpitaldeen deialdia	ITSASO 2030 proiektuko lerro estrategikoen lanketarekin hasteko, hiru lantalde jarriko dira martxan. Aurreko aktan finkatutako datak mantentzen dira, HIRIGINTZAKoa izan ezik. Hau otsailaren 19an egingo da, 19:30etan. HERRI BIZITZA bileraren eguna mantentzen da baina ordua aldatu da: 18:00etan egingo da. Aldaketa hauen berri emateko, jakinarazpena watsapez bidaliko da eta herriko paneletan ere jarriko da. Jakinarazpenean deialdi irekia egingo da, orain arte parte hartu ez dutenek ere aukera izan dezaten.	Lan talde bakoitzaren aurretik gogorazpena bidali watsapez
	Pizza tailerra	Herriko produktuen batzordearekin eta Udalarekin batera antolatu beharreko tailerra dela azpimarratzen da: izango dituen osagaiak erabaki, tailerrak sortzen duen gastuaren finantziazio iturriak aztertu, Udalak zein diru-kopururekin lagundu, ... Jakinarazpena prestatu ondoren, datorren astean bidaliko dela erabaki da.	Herriko produktuak sustatzeko Udal aurrekontuetan izango den partida ezagutu
	Diru-laguntzak 2020	Herrirako onuragarriak izan daitezkeen proiektuan zerrendatu dira eta finantziazioaren zati handi bat 2020ko zein diru-laguntza bidez lor daitezkeen ere aurreikusi da: <ul style="list-style-type: none">- Panel informatiboak (Filmak, Aizkorri panoramika...), Herria promozionatzeko folletoak, erakuslehoiak: TOKIKO- Artxiboa digitalizatzeko diru-laguntza balego- Ekipamendua (ganbara): LANDAOLA- Led-ak eta Energia berriztagarriak EVE- Mandubizelaiko trikuharriaren ingurua eta panelak: ONDARE?	- Proiektu bakoitzarekin ze aktuazio egingo den zehazten eta aurrekontuak eskatzen hasi. - Hurrengo Herri Batzarrean adierazi zein ekimen diruz laguntzen duen Udalak eta zenbateko kopuruarekin



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2020/02/11) Hurrengo saioa: 2020/02/25	Pizza tailerra	Pizza tailerrari buruzko jakinarazpena prestatu eta banaketa antolatu da.	
	Inauteriak	Otsailaren 22ko Inauteri Jaia antolatzen duten gazteekin elkartu eta erabakiko dira: Udaletxeko balkoiaren apainketa, ekintzen prestaketa, afaria	
	Berdintasun plana	Diru laguntza baten deialdia iritsi da baina ez da bertan parte hartzea egokitzat jotzen, parte hartzeko eskatzen diren baldintzak oso altuak baitira. Hala ere herrian berdintasun plan bat diseinatzen hastearen beharraz hitzegin da.	Gaia jorratzen jarraitu
	ASTE KLIMA (Euskadiko II. klima aldaketaren Astea)	Martxoaren 21etik 29ra klima aldaketari aurre egiteko astea izango dela eta, herrian antola daitezkeen tailer, hitzaldi, etab. aipatu da. Gorka Egia, Orendaingo alkate ohia, Itsasoko Udalarekin harremanetan jarri da klima aldaketaz konzientzia hartzeko hitzaldiak / tailerrak eskaintzen dituela adieraziz. Aranzadi Zientzia Elkarteari, herrian basogintzan martxan jarriko den proiektua azalduz, hitzaldia ematera etor daiteken galdetuko zaio..	Harremanetan jarri data horietan ekintzarik eman dezaketen jakiteko.



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena 2020/02/12	2020 Aurrekontuen aurreikuspenak	Foru Adundiko Fondo forala beste 12.000 eurotan gehitu da. Estimazio bat egin da partidaz partida, baina Herri Batzarrean aztertu ondoren, eraldatuko dira hala ikusiz gero.	Herri Batzarra otsailaren 29an, larunbata, 19:00etan
Hurrengo saioa: (2020/02/26)	S Lorentzoko pinudia	San Lorentzoko pinudi handia ateratzen hasteko dira berehala. Eskoilera egindako lekuan, 10 metroan, bidea estuegi dagoelako, goiko muinoari 75-80 cm kendu ahal izateko Itsasogoenekoari baimena eskatuko zaio.	Baimena eskatu eta pinuzaleari komunikatu
	Erreztzi atzeko baimenik gabeko etxebizitza	Sententzia betetze aldera, bertako jabeak legeztatutako 50 m ² gaindiko guztia eraitsi beharko du eta proiektua aurkeztu du.	Jarraipena egin
	Aranzadi Zientzia Elkartearen aurrekontua	Aranzadiri eskatu zitzaion udal-basogintza proiektuaren aholkularitza eta jarraipena egiteko aurrekontua: Kizkitzako pagadia zahar-berritzeko, S. Lorentzoko lur-saila birlandatzeko eta Alegiako ibai-ertzeko haltzadia kontserbatu eta hedatzeko.. Guztira 13.149,68€ (BEZ barne) aurrekontua onartu da.	KLIMA ASTEaren baitan, herritarroi proiektua azaltzeko hitzaldi bat eskain dezaketen galdetuko zaie.